

Arantxa Uribe

HIK HASIKO KIDEA

“El Olenchero son los aitas”

Idatzi zuen norbaitek –Gabon bezperan– Tuterako Argia ikastolako hormetan. Horma horiek, ikastolako bi sarreretako alboko hormak dira, zehazki. Mezua idatzi zuenak, beraz, haurrengana iritsiko zela ziurtatu nahi izan zuen, alajaina!

Ez ziren horiek izan, hala ere, izkiriatu zituzten hitz bakarrak: “La ikastola es un nido de ETA”, “Eusquera es ETA”, “Euskara no en la Ribera” eta beste hainbat ere baziren tartean. Baina, Olentzeroren aipamenak iruditu zitzaizkidan denetan krudelenak; beste irainetara behar ez genukeen ohitze-maila lortzen ari garelako, agian.

Egun bertsuetan, inguruko haurrak ikusi nituen Olentzerori gutunak idazten, haren irudiak margotu eta zuhaitzetan zintzilikatzen, eta ikastolara eta eskoletara bidean Olentzeroren abestiak ahoan zituztela. Gabon gauean, Olentzero gurera etortzeko zortea izan genuen. Erantzun zaileko galderen eta ametsez eta ilusioz beteriko egunen ostean, Olentzeroren aurrean gure Manex, Nora eta Haizearen begietan ikusi nuen argiak zirrara eragin zidan, hunkitu egin ninduen. Hormetako hitzak etorri zitzaizkidan gogora, eta are gupidagabeagoak ikusi nituen, orduan.

Antzeko umeak imajinatu nituen goiz batean beren gurasoen eskutik Argia ikastolako atera heldu eta mezu hura irakurtzen: zer sentitu ote zuten?



Helduok baditugu hurrekiko erantzukizun eta betebeharrak saihestezinak, besteak beste, haurren ilusioa eta irudimena babestea. Badira ere etikoki ukiezinak beharko luketen kontuak. Zerk egin ote du huts hitz horiek idatzi dituzten heziketan? Zertan sinesten ote dute? Edota zein ote dira ilusioa zapuztu eta haurren begietako argi hori itzaltzen saiatu direnen balioak?

Egun haietan ere, EAEn Eusko Jaurlaritzak Bake Hezkuntza Plana aurkeztu zuen, Nafarroan martxan dena, jada.

Idea eta helburu nagusienekin ados egonik, plan horien eraginkortasuna eskasa izango da berriro ere arazoaren erroetara jo ezean eta pertsonen eta herrien eskubideek urratuta jarraitzen duten bitartean; Tuterakoa adibide. Nafarroako hizkuntza ereduaren arabera ikasleek ez dute euskaraz ikasteko eskubiderik Tuteran, eta ikastola da euskarazko irakaskuntza eskaintzen duen hezigune bakarra.

Euskal Herriko Hezkuntza Akordioan euskaldunok euskaraz ikasteko eta gure kultura ezagutzeko dugun eskubidea jasotzen da. Euskal Herri osoan gauzatzeko bideak ezartzen ez diren bitartean, zaila izango da bizikidetzat usteltzen duten Tuterakoa bezalako ekintzak ekiditea.

Gure hurrei eta gazteei zor diegulako, jarrai dezagun lanean etorkizun justuago baten alde. Eta norberak deskubri dezala Olentzero nor den! ■

«
Bake Hezkuntza Planen
eraginkortasuna eskasa izango da
pertsonen eta herrien
eskubideek urratuta jarraitzen
duten bitartean
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Lau erostean, hogeita bi saltzean. Espekulatuzaileek lege dutena, kultura bilakatua. Eta praxi honek eremu egokia behar du. Erreka jo duten egiturak dira aukera erakargarrienak begia hor dutenentzat. Eta eliteko futbola dugu eremu egokienetakoa. Reala edo *Erreala*. Hogeiren bat mila lagun pasioa. Inguruko hedabideen eguneroko gaia. Iluna argitzen duena: Iñaki Badiola. Hiru hilabeteko epean, lautik hogeita bira egiteko zubi *erreala* igaro duena. Politikoen antzera, berea egiteko zernahi erabiltzeko gauza dela frogatu du. Chris Colemanek abisatua zuen: gezurretan dabil. Pako Aiestaranek ez du ontzat eman. Badiolak bere

Bi eta bi

egitekoa, bere gainetik ezarri nahi zuen. Ez zen solidarioa izan inorekin, futboleko ohikoa dena. Aiestaranek ez zuen espekulatuzailea ikusi Badiolaren metodologian. Espekulatuzailea eta talde lana uztar ezinak direla ez zuen ikasia. Orain bere haragitan probatu du: holako hitza beti ere taktikoa da, momentukoa, hamaiketakoa, goserik gabe ere jan erraza. Eta bakarrik geratu da. Hamaiketakorik gabe. Dagoeneko Badiolaren mugikorra sutan, entrenatuzaile andanaren ordezkariak piztuta beren deiez. Eta asteburu oro azterketa publikoa pasatzen duten jokalariek asmatzen badute, Badiolaren erabakiak egokitzen joko dituzte zaleek “izar berri bat piztera goaz...” kantatuz. ■